GABONEI ONGIETORRIA EMATEKO, LASER IKUSKIZUN PAREGABE BAT ETA 1.000 DRONEKIN EGINDAKO SHOW BAT IZANGO DITUGU DONOSTIAN, KONTXAKO BADIAREN GAINEAN

- ***«Gabonak Auzoetan», «Musika Gabonetan» eta «Gabonak Hondartzan» ekimenek eta aurtengo aisialdi, musika eta kultura proposamenek auzo guztietara hurbilduko dituzte Gabonak, adin guztietarako jarduerekin.***

- ***Kalitatean, elkartasunean, jasangarritasunean eta berrikuntzan oinarritutako kanpaina hau familiarekin gozatzeko diseinatuta dago eta astebete iraungo du, ospakizuna orekatuagoa izateko, gainkarga saihesteko eta hirian duen inpaktua murrizteko.***

Donostian, datorren ostiralean, abenduak 4, emango zaie ongietorria Gabonei, 19:30ean, Kontxako badian egingo den inaugurazio batekin, zeina, zalantzarik gabe, jaietako une berezienetako bat izango baita. Udalak, Donostia Sustapenaren bidez, antolatu duen kanpainak urtarrilaren 6ra arte iraungo du, eta hiria argiz, musikaz, jardueraz eta familiarekin gozatu eta partekatzeko proposamenez beteko du.

Inaugurazioari hasiera emateko, ikuskizun bisual handi bat egingo da, inpaktu handiko ekintzetan espezializatutako Allumee enpresa frantsesaren eskutik. Argiz eta soinuz betetako ikuskizunean, hainbat argi-sortak badia zeharkatuko dute eta ur gainean islatuko dira, gaueko protagonista nagusietako bat hasi aurretik: 1.000 dronez osatutako show bat, Donostiako badiaren gainean.

Hiriaren identitatea eta azken urte honetako emozio eta esperientziak elkarlotuko dituen ikuskizun horrekin, Donostiaren bihotzara iritsiko gara, non argia ilusio, tradizio eta ospakizun bihurtuko baita.

Atzera-kontuaren ondoren, Udaletxeko terrazatik piztuko da Gabonetako argiztapena, eta hasiera ofiziala emango zaie jaiei. Inaugurazioarekin jarraitzeko, argizko pertsonaia batzuk aurkituko ditugu jende artean paseatzen, Alderdi Ederreko baso argitsuan. Ospakizuna hiriko beste toki batzuetara ere zabalduko da; hala, aldi bereko ikuskizun bisualak aurkituko ditugu zenbait tokitan, esaterako, Kursaaleko Gabonetako Bolan, Ramon Labayeneko agertokian eta Urumea pasealekuan, Gabonetako Azokako zenbait eremutan.

“Donostiaren identitatea hobekien islatzen duten ospakizunetako bat dira Gabonak; hain justu, hiriak partekatzea maite du, bere tradizioak zaintzen ditu eta kalitatezko esperientziak eskaintzearen aldeko apustua egiten du. Aurtengo honetan, berriz ere, Gabonetako kanpaina herritar eta bisitarientzako topagunea izatea nahi dugu, beti aintzat hartuta hurbiltasunaren, elkartasunaren eta jasangarritasunaren balioak”, adierazi du Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi Ane Oyarbidek.

Inaugurazioaz gozatu, segurtasunez: nola iritsi eta mugitu

Aurten, ikuskizuna zuzenean Kontxako badian egingo da. Berori ikusteko tokirik egokiena Kontxako baranda izango da, Nautikotik hasi eta erlojuetaraino, baita hondartza ere, zeina itsasbeheran toki pribilegiatu bihurtuko baita droneez gozatzeko. Gainera, tokiaren sonorizazioa hobetuko da, showaz ezin hobeto gozatzeko.

Aurten bereziki gomendatzen dugu joan-etorriak aurretiaz planifikatzea eta garraio publikoa lehenestea. Euskotrenen Erdialdea-Kontxa geltokia da hurbilen dagoena, eta hiru sarbide ditu: Xabier Zubiri kalean (Londres Hotela), Loiola kalean eta Easo kalean, guztiak 2-5 minutura, oinez. Easoko

sarbidean igogailu bat dago, mugikortasun urriko pertsonentzat. Renferekin bazatozte, Iparraldeko geltokia 10-15 minutura dago, oinez. Gainera, Dbusek zerbitzu bereziak jarriko ditu (ikus ordutegiak kanal ofizialetan), baita Lurraldebusek ere.

Bizikletaz edo patinetez etorri nahi baduzue, hobe da jendetza handieneko eremuetatik kanpo utzi eta ibilbideko azken metroak oinez egitea. Ibilgailu pribatua erabiliz gero, aurreikusitako trafiko murrizketengatik, komeni da Alderdi Eder, Boulevard zumardia, Portua eta Kontxako pasealekuko sarbideak saihestea.

Bestalde, mugikortasun urriko pertsonentzako gune bat gordeko da Alderdi Ederreko terrazan, eta aukera izango dute laguntzaile batekin joateko. Lekuak bete arte egongo da sartzeko aukera, Ijentea kalearen atzealdetik, 18:30etik 19:00etara.

Ikuskizuna amaitzean ere garraio publikoko zerbitzu bereziak erabiltzea gomendatzen da. Euskotrenen, Hendaiarantz doazen bidaiariak Loiola kaleko sarbidetik sartuko dira, eta Zumaiaratz eta Lasarterantz doazenak, berriz, Xabier Zubiri kaletik. Easoko sarbidean igogailua dagoenez, mugikortasun urriko pertsonek erabiltzeko gaituta dago. Dbusen eta Lurraldebusen zerbitzu bereziak ere kontsultatzea gomendatzen da.

Argiak, artea eta magia txoko guztietan

Udalak, Donostia Sustapenaren bidez, hiria argiz jantziko du, ehun kale ingurutan banatutako bostehun argi-elementu baino gehiagorekin. Dekorazioan, arkuak, kale-argietan jarritako motiboak, argiztatutako zuhaitzak, hiru dimentsioko egiturak eta zeru argitsuak uztartuko dira, argia hiri paisaian integratzea xede duen Gabonetako girotze batean.

Guztira, 168 argi-arku, 181 kale-argi apaindu, argiztatutako 223 zuhaitz eta lurzoruko bost elementu jarriko dira. Aurtengoan ere, Alderdi Eder Gabonetako agertoki nagusietako bat izango da, hango milazkak, pergolak, palmondoak eta parterreak argiz apainduko baitira, eta betiko 18 metroko pinua jarriko baita.

Maria Cristina Hotelaren, Udaletxearen, Liburutegi Nagusiaren, Victoria Eugenia Antzokiaren eta Bretxa Azokaren fatxadak ere argiztatuko dira. Boulevard zumardiko eta Ramon Labayen plazako zuhaitzetan ohiko argi bolak aurkituko ditugu, eta Alde Zaharreko kale guztietan motibo bera jarriko da, multzoaren batasun bisuala indartzeko.

Edizio honetako berritasun nagusietako bat Urbieta kalean jarritako motibo bereiziko arku berri bat da. Era berean, lehen aldiz, Gabonetako argiak jarriko dira Santa Katalina zubian, Frantzia pasealekuko azokak eta Ramon Labayen plaza lotuko dituen argizko ibilbide bat sortzeko.

Zurriola hiribidean, Kursaaleko aparkalekurako sarbidearen ondoan dagoen Gabonetako Bola jaietako gune ikonikoetako bat izango da berriz ere. Hamabi metroko diametroa duen egiturak aukera ematen du bere barnetik ibiltzeko, eta LED argiz eta elur-maluta handiz apainduta dago. Barrualdean, goitik esekitako hiru argi-esferak osatzen dute dekorazioa. Instalazioak askotariko argi- eta soinu-emanaldiak eskainiko ditu eta berez ikuskizun bat izango da.

Hiru azoka gune, familiarekin gozatzeko hiru esperientzia

Gabonetako aisialdi eskaintza hiriko zenbait gunetan banatuko da eta askotariko publiko eta adinetarako proposamenak izango ditu. Joan den azaroaren 7tik urtarrilaren 21era arte Kontxa pasealekuan zabalik egongo den 32 metroko noriak hiriaren ikuspegi pribilegiatu bat eskainiko du, aurtengoan ere.

Nobedade gisa, haurrentzako aisialdi gune bat egongo da Frantzia pasealekuko Azokan, lera bidezko jaitsiera tradizionala berreskuratuko baitu, familien esperientzia indartzeko girotze berezi batekin.

Bestalde, Cervantes plazan, bola zuhaitz bat jarriko da lehen aldiz. Proposamen horretan, etxeko txikiek aukera izango dute Gabonetako motiboekin apaindutako bola batzuetara igotzeko. Instalazioa osatzeko, garai horretako produktu tradizionalak eskainiko dituzten bi etxola egongo dira.

Proposamen horiez gain, hainbat ikuskizun egongo dira familientzat, Gabonetako gune nagusietan, Alderdi Ederreko baso argiztatutik hasi eta Zurriolako Bolara eta azokako eremuetara iritsi arte.

Gabonetako Azoka, kalitatea eta elkartasun konpromisoa

Berriz ere, Gabonetako Azoka kanpainaren ardatz nagusietako bat izango da, eta kalitatearen, tokiko produktuaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua egingo du. Ramon Labayen plazan eta Frantzia pasealekuan, 67 etxola jarriko dira: 30 Ramon Labayen plazan (horietako hamar, tokiko produktuz osatutako azoka gastronomikokoak) eta 37 Frantzia pasealekuan.

Azokan, ingurumenaren aldeko konpromisoa mantentzeko, LED bidezko argiztapena, hondakinak kudeatzeko edukiontziak eta jatorri berriztagarriko elektrizitatea erabiliko dira; hala, jasangarritasun irizpideak gehituko dira merkataritza, gastronomia eta Gabonetako giroa konbinatzea xede duen proposamen honetan.

Elkartasuna izango da Kanpainaren beste zutabeetako bat, eta hiriko tokiko elkarteei eta kolektiboei laguntzeko hainbat ekimenen bidez gauzatuko da. Besteak beste, aipagarriak dira adinekoentzako triziklo ibilaldien jarduera, Bizikletaz Adinik Ez elkartearekin lankidetzan egina, eta Boluntariotzaren Egunarekin eta gizarte erakundeen parte-hartzearekin lotutako beste ekintza batzuk.

Gabonak auzoetan bizitzea

Aurtengoan, jarduerak deszentralizatzeko eta Gabonak auzo guztietara hurbiltzeko asmoa nagusituko da. Horren harira, nobedade nagusietako bat «Gabonak Auzoetan» ekimena izango da, eta abenduaren 20tik 27ra egingo da Altza, Egia, Antigua eta Loiola auzoetan. Horren barruan, familia osoarentzako proposamenak izango dira goizetan.

Musikak toki nabarmena izango du, oraingoan ere, «Musika Gabonetan» ekimenaren edizio berri batekin, zeina abenduaren 26tik 30era izango baita Ramon Labayen plazako eta Alderdi Ederreko eszenatokietan. Azken hori aurtengo kanpainan estreinatuko da. Programaren bidez, hiriko musikari gazteek aukera izango dute lehen aldiz agertoki batera igotzeko, beren lana erakusteko eta musika herritarrengana hurbiltzeko.

Musika programazioa osatzeko, doako bi kontzertu emango ditu Donostiako Orfeoiak: bata abenduaren 26an, larunbata, 19:30ean, Altzako elizan, eta bestea, abenduaren 27an, igandea, 19:30ean, Amarako Familia Santuaren elizan.

Bestalde, abenduaren 23an, «Gabonak Hondartzan» ekimenaren edizio berri bat egingo da Kontxako hondartzan. Haurrentzako kirol eta jolas jardunaldi bat izango da, doakoa, eta Fortuna Kirol Elkartearekin lankidetzan antolatua. Jarduerak olgeta, ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta inklusioa uztartuko ditu, agertoki bakar batean. Ekimena 10:30etik 13:00etara izango da, eta izena eman beharko da Erlojuetako etxabeetan.

Hirian jarduera eta aberastasuna sortzen dituen kanpaina bat

Donostia Sustapenak antolatutako Gabonetako Kanpaina aukera ona da tokiko jarduera ekonomikoa bultzatzeko, merkataritza eta ostalaritza dinamizatzeko eta Donostiaz gozatzen lagunduko diguten esperientzia berriak sortzeko. 2025eko edizioak 27,8 milioi euroko zuzeneko inpaktu ekonomikoa izan zuen, aurreko urteko 24,7 milioi euroen aldean. Kopuru horretatik, 26,9 milioi Gabonetako kanpainaren harira berariaz hurbildu ziren herritarren eta bisitarien gastuari dagozkio.

Horrek agerian jartzen du Gabonek gaitasun handia dutela hirian jarduera eta aberastasuna sortzeko, bai eta Donostiako merkataritza eta auzo guztien erakargarritasuna indartzeko ere. Aurtengo edizioan ere bide beretik joan nahi dugu eta, horretarako, proposamenak banatu eta kalitatezko programazioa eskainiko da, hiriaz askotariko guneetatik gozatze aldera.

Ekonomia eta Tokiko Enpleguko zinegotzi Ane Oyarbideren ustez, “Gabonetako Kanpainak aukera ematen du jarduera ekonomikoa bultzatzeko, tokiko merkataritzari eta ostalaritzari laguntzeko eta egun hauetan Donostia helmuga erakargarri bihurtzeko”.

Programazio osoa, klik batean

Gabonetako kanpainaren egitarau osoa aurki dezakezue www.donostiagabonetakoazoka.eus webgunean. Webgunean ere aurkituko dugu Gazteria Sailaren «Gabonak Zuretzat» programazioa, aurkezten denean, zeinetan hiriko auzoetan egingo diren ekimen eta jarduerak agertuko baitira.

Esker onak

Zenbait erakunde babesle eta laguntzaile publiko-pribaturen laguntzaz egiten da Udalak Donostia Sustapenaren bidez bultzatzen duen Gabonetako Kanpaina. Haien konpromisoari esker, Donostiako herritarrek eta bisitariek Gabonetako programazio partekatua, kalitatezkoa eta guztientzat irekia daukate aurten ere.

Erakunde babesleak: María Cristina Hotela, Kutxabank, Campezo, Teusa, Bataplan - Café la Concha, Eroski, La Perla, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea, Garbera merkataritza gunea, Casa Eceiza, SShops.

Erakunde laguntzaileak: Victoria Eugenia Antzokia, Aita Mari, Aspace, Gipuzkoako Belenzaleen Elkartea, Bizikletaz Adinik Ez, Fortuna Kirol Elkartea, Diario Vasco, Musika eta Dantza Eskola, Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa, Donostia Gipuzkoa Basket Fundazioa, Gipuzkoako San Juan de Dios Ospitalea, Mi Dulce Guerrero, Donostiako Orfeoia, Gipuzkoako Ukraina Euskadi - Rodovid Zentroa, Gabonak Zuretzat - Donostia San Sebastián Gazteria eta Donostia Kultura.